

TOLOSALDEKO hitza info

Asteazkena, 2013ko irailaren 11. IX. urtea. 2.641. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Tolosako Triangulotik hasi eta Ibarra plaza baino bidea egin zuen, atzo, manifestazioak. I. TERRADILLOS

Bai Euskal Herriari mugimenduak ikurrina eta mendia elkartuko ditu

Bihar, Martin Zabaleta eta 'Boli' mendizaleen hitzaldia izango da, Anoetan; igandean, Hernion izango den ekitaldira joateko deia egin dute 05

Euskal Herriko emakume taldeak elkartuko dira Tolosan

Batea! jardunaldiak izango dira larunbatean kultur etxean; sareak sortzea dute helburu 02

'Herriarren epaia'-ren azken ekitaldira joateko deia egin du Herrira-k

Iruñean emango dute ezagutzera 'Herriarren epaia'; eta eskualdetik autobusak antolatu dituzte bertara joateko 03

Hilabete amaiera bitartean egin daiteke matrikula AEKn

Euskara ikasi nahi dutenek matrikula egiteko aukera dute Andoainen; baita Anoeta, Amasa-Villabona, Irura eta Zizurkilen ere 04

Herritarrek babesu agertu diote Jokin Aranalderi

Ibartarraren aurkako euroagindu eskaera salatu dute herritar ugari Tolosatik Ibarra egindako manifestazioan; Paueko Auzitegiak hilaren 24an emango du ezagutzera euroaginduen gaineko erabakia 07

XVII. HITZA Udako Argazki Lehiaketa



1. Saria

Bermeoko Lurdeia landetxean, bi pertsonentzako asteburu osorako egonaldia.



2. Saria

Tolosako Beti-Alai jatetxean, bi pertsonentzako asteburuko otordua.




3. Saria

Txindokiko Itzala abentura parkerako bi sarrera.



Bidali zure argazkia thargazkiak@hitza.info helbidera!



TOLOSALDEKO hitza

matrikula
irailak 2 -13

Bulego ordutegia
09:00 - 13:00 / 16:00 - 19:00

Aitzol
Udal Euskaltegia

Rondilla 34-B 3.
20400 TOLOSA
tel.: 943651006 / 943652343



Joan den urtean Tolosako denbora bankuko kideek antolaturiko topaketan, murala margotzen. I. GARCIA LANDA

Emakume taldeen arteko sareak sortzea bilatuko du Batea! jardunaldiak

Tolosako kultur etxean izango dira Euskal Herri osoko emakume taldeen arteko topaketak, larunbatean

Itzea Urkizu

Emakume taldeen, talde feministen, elkarten nahiz esparru honetan aritzen diren beste hainbat talde eragileren artean sareak sortzeko asmoz, Batea! izeneko

bigarren topaketa izango da larunbat honetan, Tolosan.

Donostiako Emakumeen Etxea elkarteak antolaturiko egitasmo honek, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Tolosako Udalaren laguntza izango du, eta emakumeek gizarteko hainbat esparrutan elkarrekin hobeto funtzionatzeko moduak bilatuko dituzte, besteak beste, elkar ezagutzuz.

Horrela, beraz, goizean hasita, antolatzaileek proiektua aurkeztuko diete bertaratuei, eta lan taldeetan banatuko dira jarraian. Ar-

duradunek lau arlo banatu dituzte: kirola, bizirik irauteko estrategiak, sareen sarea eta, azkenik, kulturari, indarkeriari eta festei dagokiena.

Saretzeko proposamenak

Esparru hauetakoren bat aukeratu, eta topaketara bertaratutakoek proposamenak egin beharko dituzte, finean; talde bakoitzak zertan aritzen den azaldu beharko du, eta jarraian, talde hauek guztien arteko sare erraldoia osatzeko zer egin litekeen pentsatu.

Kirolaren saila, esaterako, kirola bereziki taldean egin nahi dutenei zuzendu diete antolaturiko kideek: «Asmoa emakumeen parte hartzea sustatzen duten proiektuak elkarbanatzea da, hain maskulinoa den kirol munduan», diote. Modu honetara, estrategiak bateratzeko ahale-

Kirola, kultura, festak nahiz bizirautea hizpide izango dituzte sareak osatzeko

Goizetik arratsaldera, lan talde dinamika izango dute hausnartu eta proposatzeko

ginak egingo dituzte, emakumeak kirolera gerturatu, eta beren buruaren jabe izatea sustatzeko.

Bizirik irauteko estrategien sailari dagokionez, emakumeen bizitza errazten duten egitasmoetan aritzen direnentzako pentsatua da. Besteak beste, emakumeak indarkeriarik gabe bizitzera gerturatzeko egitasmoak ariko dira, etika feminista eta emakumeen bizirautea oinarri hartuz.

Sareen sarea sustatuz, berriz, taldeak eta eragileak koordinatu nahi dituztenak ariko dira; sarean lan egiten duten egitasmoak, alegia.

Azken lan taldea, berriz, kulturari, indarkeriari eta festei loturikoa da. Kulturari oinarrituriko egitasmoak gustuko dituztenen proposamenak jasotzea espero dute Batea! topaketako arduradunek, eta bereziki kulturaren esparruan indarkeriari aurre egiten diotenak, nahiz festen inguruan ikuspuntu feminista bultzatuz lan egiten dutenak, lan talde honetan aritzea espero dute.

Hausnarketa, proposamen eta ideia hauek guztiak Tolosako kultur etxean jasoko dituzte Euskal Herri osoko emakumeek, 10:00etatik 17:00etara bitarte. tolosa@hitza.info

Pentsioen erreformaren aurka protesta egingo dute bihar Tolosan

Erretirodunek elkarretaratzera deitu dituzte gazteenak ere, «erreformak eurei eragingo dielako»

I. Urkizu

Tolosako erretirodun eta pentsiodunen elkarteak elkarretaratzeko antolatu du biharko, Trianguloa plazan. 19:00etatik aurrera, eta *Pentsioak ukitzen dituenak ez dauka nire botoa* lelopean, pentsioak KPIaren eboluzioaren arabera moldatu behar direla adarrikatuko dute, besteak beste.

Pentsiodunek alderdi politiko guztiak ohartarazi nahi izan dituzte, eta pentsioak aldatuz gero, aurrerantzean beren bozkarik ez dutela izango argi azaldu dute.

Horrela, KPIak urte urte jasaten dituen aldaketen arabera pentsioak aldatzea bidezkoena dela defendatzen dute, «batez ere errenta baxuen kasuan». Honi, kopuruek bizi itxaropenarekin harremanik ez dutela ere gaineratu diote: «Bizi itxaropena handitzeak ez du esan nahi urtean diru sarrera gutxiago izanda bizi gaitezkeenik».

Horrela, eta sistema jasangarria ez baldin bada, diru sarrerak nolabait handitzea proposatzen dute, kuotak areagotuz nahiz enpresen aktibitateko zergaren bat horretara bideratuz.

Aipatzekoa da, Tolosako udal gobernuak bat egin duela hitzorduarekin, eta herritarrei ere parte hartzeko deia egin diela. Bide beretik, pentsiodunek herriko gazteak ere inplikatzeko nahi dute, «erreformak, azken finean, eurei eragingo dielako».

↓ Batea! jardunaldiaren egitaraua

IRAILAK 14, LARUNBATA

- 10:00-10:20. Batea talde eragilearen aurkezpena.
- 10:20-11:30. Bertaratutakoaren aurkezpena.
- 11:30-12:00. Etenaldia kafea hartzeko.
- 12:00-13:30. Lehen lan taldeen txanda: azalpenaren zatia,

norberak bere proiektuak kontatzeko. Lau lantaldetan banatuko dira: kirola; bizirauteko estrategiak; sareen sarea eta kultura, indarkeria eta festak.

■ 13:30-14:30. Bazkaria egingo dute, pintxoekin.

■ 14:30-16:00. Bigarren lantaldetan txanda: Taldeetan elkartuta, sare moduan lan egiteko

proposamenak egin eta biltzea izango da helburua.

■ 16:00-17:00. Lan taldeak: pentsatu eta bilduriko proposamenak batzarrean partekatuko dituzte.

■ 17:00. Batea jardunaldiaren amaiera.

■ 17:30. Jardunaldiaren itxiera festa.

↓ Iragarki laburrak

LAN BILA

Etxeko lanak. 08:00etatik 14:00etara etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, esperientzia handia duen emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Kotxea ere badauka, gainera. Interesa duen edonork dei dezala ondorengo bi telefono zenbakietako batera: 943 69 68 82 edo 606 52 19 92.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

→ Laburrak

Foro errepublikarraren bilera, gaur, Zerkausion

GIZARTEA Tolosako Foro errepublikarrak ikasturte hasierako bilera egingo du gaur, 20:00etan, Zerkausion.

'Bayoneta' ren azken alea bihar aurkeztuko dute

GIZARTEA Bayoneta aldizkariaren azken alea bihar aurkeztuko dute, 20:00etan, Sukaltakan. Napoleonen garaiko gastronomiaz ariko dira Rober-to Ruiz eta Carlos Rilova.

‘Herritarron epaia’ ekimenaren azken ekitaldira joateko autobusak daude

Izena emateko zerrendak eskualdeko «ohiko lekuetan» jarri ditu Tolosaldeko Herrira-k

Asier Imaz

Normalean epaitegiek plazaratzen dute epai bat, baina bada ardua hori herritarren gain utzi nahi duen ekimen bat: *Herritarron epaia*. Herrira mugimenduak martxan duen ekimen horren arabera, preso eta iheslariaren

inguruko, eta batez ere, 1977/2006 doktrinaren inguruko epaia emateko garaia iritsi zaie euskal herritarrei.

Gauzak horrela, *Herritarron epaia* ekimen ibiltaria irailaren 14an iritsiko da azken geltokira. Amaierako ekitaldia, larunbatean, Iruñeko Anaitasuna pabiloian egingo dute. Tolosaldeko Herrira-k autobusak aterako ditu eskualdetik Nafarroako hiriburura joateko, eta zerrendak, «ohiko lekuetan» jarri dituztela azaldu dute preso eta iheslariaren eskubideen aldeko herri mugimendutik.

Tafallan abiatu zen *Herrita-*



Tolosaldeko Herrira-k 'Herritarron epaia'-ren harira Tolosan egindako ekimena, uztailaren 14an. HITZA

rron epaia, eta 80 herri inguru igaroko ondoren, tardean Tolosa, hilaren 14an iritsiko da Iruñera. Euskal Herriko herri ezberdinetan bildutako epai guztiak aztertu ondoren, larunbatean plazaratuko dute euskal herritarren epaia zein izan den. Ekitaldia 18:00etan hasiko da, eta Herrira-tik eskualdeko herritar guztiak gonbidatu dituzte bertara.

Abiapuntu bezala Tafalla aukeratzea ez zen kasualitatea izan,

Ines del Rio euskal preso berta-koa baita. 2012ko uztailaren 10ean, Estrasburgoko Auzitegiak del Rio aske uzteko agindua eman zuten, «1977/2006 doktrinaren aplikazioak Giza Eskubideen Europako Konbentzioa urratzen zuelako». Espainiako estatuak, ebazpena ez onartzearekin batera, epai horri helegitea jarri zion. Herrira-tik azaldu dutenez, Europatik «hilarbete gutxi barru» iritsiko da epaitegien erantzun berria.

Hala eta guztiz ere, helegitearen inguruko epaiari itxaron gabe, herritarrek euren epaia egiteko garaia iritsi dela uste dute preso eta iheslariaren eskubideen aldeko mugimendutik, eta horregatik jarri zuten martxan *Herritarron epaia*. Irailaren 14ko ekitaldiak, amaiera beharrean «beste hainbat erronken abiapuntua izan nahi du», Herriraren esanetan, «horregatik, beharrezkoa da Anaitasuna goraino betetzea».

↓ Iritzia

Egiaren ordua

Egun hauetan, hasiera emango diogu ikasturteari. Lan handiko ikasturte bizia izango da segur aski. Gatazka konpontzeko oso garrantzitsuak izan daitezkeen elementuak izango ditu, bereziki estatuek espetze politikan duten jarrera inobilista gainditzeko. Urtero irailan errepikatzen den mezuak topikoa iruditugatik, datozten 10 hilabeteak erabakigarriak izango dira. Beraz, egiaren ordua iristen ari da Herrira mugimenduarentzat. Gure esku dagoen guztia egin behar dugu, zaila izan den prozesu honetan laguntzeko.

Begi bistakoa da estatuek ez dutela pausorik eman nahi normalizazioan laguntzeko. Ez dute bake egoera lortzeko inolako interesik, eta behin eta berri-erakutsi dute sekulako mespretxua dietela giza eskubideei. Ez gaitzezen engainatu: ez Madrilek ez Parisek ez digute ezer oparituko, eta are gutxiago preso eta iheslariaren itzulera. Beraz, helburua betetzeko baldintzak euskal herritarrok sortu behar-ko ditugu.

Gizartearen gehiengoak salbuespen neurrien amaiera eta konponbiderako eta bakerako

aurrerapausoak ematea eskatzen duela frogatu dugu. Hori da barneratu behar dugun lehenbiziko gauza: eskakizun horien aldeko iritzia orokorra da. Orain, gizartearen gehiengoaren kontsentsua ekintza bihurtu behar dugu masa-dinamikaren bitartez gobernuen immobilismoa hausteko. Hori da gure lana, hori da gure egitekoa. Eta jendearekin batera egin behar dugu, jende askorekin.

Masa-dinamika zabal bat aktibatuz, gizartearen gehiengoaren nahiekin bat egin behar dugu, eta hori, gure ustez, goiburua batean laburbiltzen da - «giza eskubideak, konponbidea, bakea»- eta hiru eskakizunetan: sakabanaketari amaiera

ematea, biziarteko zigorra indargabetzea eta gaixotasun larriak dituzten presoak askatzea. Hori da gehiengo zabalak sortuko dituen adostasunaren munita, aurrera egiten lagunduko diguna. Eta bereziki garrantzitsua da milaka lagun eguneroko sufrimendua arintzea eta ahal-eginak egitea espetze politikak biktima gehiagorik eragin ez dezan.

Ikasturte hasiera honetan, horri dagokionez, 1977/2006 doktrina behin betikoz indargabetuko lukeen Estrasburgoko epaiaren gaineko zurrumurruek ditugu. Hala bedi! Baina, epaia edozein dela ere, gakoa gizarte aktibatzea da eta hori da gure eginkizuna.

(...) Ekainean *Herritarron epaia* jarri genuen abian. Uda osoan zehar 80 herri eta auzotik gorako plazak bisitatu dituen koadernoak. Auzitegiak bideak ixten tematzen diren honetan, guk nahiago izan dugu gizarte berak idaztea herri honen gero-ari buruzko epaia. Irailaren 14an Iruñeko Anaitasuna pabiloian jendaurrean aurkeztuko dugu eta ondoren estatuei eta nazioarteko komunitateari bidali. Era berean, Estrasburgok hartzen duen erabakia edozein delarik ere, lanean jarraituko dugu jendearen eskaera bete dadin (...).

■ **Tolosaldeko Herrira.** Iritzi artikulua bere osootasunean tolosaldea.hitza.info webgunean dago zintzilikaturik.

berria bekak
2013

Norentzat:

- Unibertsitate titulua duten gazte esperientzia gabekoentzat
- Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutenentzat

Zuzenketa-itzulpengintza
arloan

beka bat

EZAUGARRIAK:

- Bederatzi hilabeteko iraupena, urritik uztailera
- 6.255 euroko diru laguntza
- BERRIAk Andoainean duen egoitza nagusian

Eskaerak aurkezteko epea: 2013-09-25 • Eskaera egiteko orria eta beka delaldia www.berria.info helbidean eskura daitezke

AIKETA EZAZU,
BIZI ERABAKITZU
berria

Hilabete bukaerara arte dago zabalik AEKn matrikulatzeko epea

Amasa-Villabona, Irura, Zizurkil eta Anoetan euskara ikasteko aukera eskaintzen du euskaltegiak

Mikel Iraola

Andoingo AEK euskaltegian 2013-2014 ikasturtean matrikulatzeko garaia zabalik da dagoeneko, eta hilabetearen amaierara bitarte, irailaren 30era arte hain zuzen, izango da euskara klaseetan izena emateko aukera.

AEKren egoitza Andoaineko kokatuta badago ere, Anoeta, Irura, Zizurkil eta Amasa-Villabonan ere klaseak ematen dira, baldin eta aurrera egiteko nahikoa jende biltzen den taldean.

Izen-emateko, hainbat modu daude: Zizurkil, Irura, Anoeta eta Villabonako Udalekotek euskara zerbitzueta joatea da aukera horietako bat; gainontzean Andoaingo bulegoarekin kontaktuan jarri daiteke andoain@ae.org helbidearen edo 943591704 telefono zenbakaren bitartez. Andoaingo Extremadura kalean kokatuta dauden bulegoetako ordutegia, 10:00etatik 13:00era eta 18:00etatik 20:00ra bitartekoa da.

Euskalduntze maila guztiak eskaintzen ditu AEKk. Lehen, bigarren eta hirugarren mailako hizkuntza eskakizunak prestatzeko



Villabona eta Zizurkilgo pasa den urteko ikasleak txango batean. PHITZA

klaseak ere baditu, EGAKo azterketa prestatzeaz gain. Horrez gain, kurtsoan zehar kultur ekimenak antolatzen dira ikasleak elkar hobeto ezagutu eta euskaraz mintzatzeko, hala nola, bazkari-afariak edo txangoak.

Raquel Estevez, duela sei urte tik Anoetan bizi den ikaslea da, eta bere esanetan, «hitz egitea, jolasak eta egindakoa errepasatzea» da gehien estimatzen duena, «konturatu gabe euskara barneratzen duelako».

Klaseak urriaren 3an hasi, eta ekainaren 19an bukatuko dira. Ordutegi zabalak eskaintzen du goizetik gauera bitarte. Pertsonalizatzeko aukera ere bada, autoikaskuntza sistemak ordutegia

ikaslearen beharretara egokitzea ahalbidetzen baitu.

Diru laguntzak

Bestalde, udalek diruz laguntzen dituzte ikasleak, eta horietarako asistentzia eta klaseen aprobetxamendua kontuan izaten dira. Anoetako Udalaren kasuan, lanean ari direnek %90eko asistentzia izan behar dute; eta langabezia daukeden eta erretirodunek, %80ko asistentzia behar dute izan. Iru-ran, berriz, langabetu eta erretirodunek %85eko asistentzia izan behar dute. Langabezia daukeden eremartikularen balioaren %100a itzultzea lor dezakete. Matrikulazioa egin orduko aurkeztu behar da udal txan laguntza eskaera.

Hamalau ikastaro antolatu ditu Zizurkilgo Udaleko kultura sailak

Zizurkilgo liburutegian hiru eta bost urte arteko haurrei eta gurasoei zuzendutako irakurketa kluba antolatu dute

M. Iraola Zizurkil

Ikasturte berriari begira, eta urtero moduan, Zizurkilgo Udaleko kultura sailak ikastaroak antolatu ditu adin ezberdinetako herri-tarrentzat.

Denera hamalau ikastaroko eskaintza prestatu du udalak, Iriarte eta Atxulondo kultur etxeetan banatuta. Gorputz heziketa, sorkuntza eta dantzeekin zerikusia duten ikastaroak dira guztiak, hala nola, Pilates, Yoga, bertsolaritza tailerra, sabel dantza edota euskal dantza.

Ikasturtea, urriaren lehenean hasiko da, eta ekainaren 20an bukatu. Izena emateko epea, berriz, atzo ireki zen, eta irailaren 25era bitarte izango da zabalik. Horretarako, Aurrera plazan kokatuta

dauden udal bulegoetara joan behar da. Informazio gehiagorako 943 69 24 95 telefono zenbakira deitu behar da.

Haur irakurketa kluba

Bestalde, Zizurkilgo liburutegian haur irakurketa kluba martxan jarriko du Galtzagorri Elkartearekin batera. Egitasmo honen helburu nagusia, haurrei liburu mundua ireki eta irakurketaz eta literaturaz gozaraztea da, guraso eta hezitzaileekin une intimoa eta erakargarriak sortuz.

Hiru eta bost urte bitarteko haurrentzat, eta haien gurasoentzat zuzendua dago irakurketa klub hau, eta denen parte hartzea bilatuko duten saio dinamikoak egingo dira.

Urria, azaroa eta abenduan, saio bana egingo dute hilabete bakoitzeko, eta hiru saio horietako kuota 25 eurokoa da. Izena emateko, liburutegira joan behar da irailaren 20ra bitartean. Dagoeneko zabalik da epe hori. Gehienez, 20 une onartuko dira.

● villabona-aiztondo@hitza.info

↓ Eskaintza

ATXULONDO KULTUR ETXEO IKASTAROA

- **Euskal dantza (haurrak)**. Asteazkenetan 17:15etatik 19:45era, adinaren arabera taldean banaturik. Prezioa: txikiak 60 euro, eta ertainak eta handiak 100 euro.
- **Patchwork (helduak)**. Asteazkenetan 18:00etatik 20:00etara. Prezioa: 70 euro.
- **Yoga (helduak)**. Astelehenean eta asteazkenetan, 18:30etik 20:00etara. Prezioa: 105 euro.
- **Pilates (helduak)**. Astearte eta ostegunetan 18:30etik 19:30era. Prezioa: 125 euro.
- **Sabel dantza (helduak)**. Astelehenean 19:00etik 20:30era. Prezioa: 130 euro.
- **Gimnasia (erretirodunak)**. Astelehenean, asteazken eta ostiraletan 10:00etatik 11:00etara.
- **Joskintza eta eskulanak (erretirodunak)**. Ostegunetan 16:00etatik 18:00etara.
- **Yoga (erretirodunak)**. Astearte eta ostegunetan 11:00etatik 12:30era.
- **Oharra**. Erretirodunentzat izen emateak eta prezioak, Elizpe Jubilatuko Elkartearen.

IRIARTE KULTUR ETXEO IKASTAROA

- **Eskulanak**. Ostiraletan 15:00etatik 17:00etara. Prezioa 70 euro.
- **Gimnasia (helduak)**. Astelehenean eta asteazkenetan 11:15ean. Prezioak: erretirodunak 75 eta gainontzekoak 105 euro.
- **Bertso tailerra (14 urtetik gorako gazteentzat)**. Asteazkenetan 19:30etik 21:00etara. Taldearen beharren arabera, ordutegia moldatu daiteke.

IKASTARO MOTZAK

- **Antzerki tailerra (haurrak)**. Urritik abendura, astelehenean arratsaldetan. Izen ematearen arabera antolatuko dira taldeak. Prezioa: 30 euro.
- **Txotxongilo tailerra (8 urtetik gorako haurrak)**. Urritik abendura, ostiraletan 17:30etik 19:00etara. Prezioa: 30 euro.
- **Tai-Chi (helduak)**. Urritik abendura, 19:30etik 20:30era. Prezioa: 50 euro.
- **Loatzo Musika eskola**. Informazio gehiago, 943 69 18 57 telefono zenbakian.

Azoka Berezia izango da larunbat honetan Txermingo Ikastolan

Hamarretatik aurrera denetariko produktuez osatutako 40 postu izango dira; ondoren, isats gisatuen lehiaketa

M. Iraola Amasa-Villabona

Larunbat honetan, hilak 14, Irrintzi Elkartek urtero antolatu ohi duen Azoka Berezia izango da Amasa-Villabonan. Goizeko hamarretatik aurrera, 14:00era bitartean, 40 postu ikusteko aukera izango da Txermingo Ikastolako arkupeetan.

Orotariko produktuak ikusi eta erosteko aukera izango da bertan, jakiak (barazki, hestebete, konterberba, esneki eta gozoak), eta artisauro produktuak bereziki. Pin-



Orotariko produktu artisauroak topatu daitezke azokan. ITERRADILLOS

txo eta edariak dastatzeko aukera ere izango da. Egurdian, berriz, ohiturari jarraiki, eskualdeko elkartetako kideen arteko isats gi-

satuen lehiaketa egingo da leku berean. Ondoren, sukaldatutako arekin bazkaria egingo dute azokako parte hartzaileek.

Ikurrina eta mendia uztartuko ditu Bai Euskal Herriari ekimenak

Ostegunean Anoetan hitzaldia eskainiko dute Martin Zabaleta eta Jon Goikoetxea 'Boli' mendizaleek

Asier Imaz

Tolosaldeko Bai Euskal Herriari herri mugimenduak bi hitzordu plazaratu ditu ondorengo egunetarako. Alde batetik, hitzaldia antolatuko dute Anoetan, eta bestetik, Herniorako irteera. Aldarrikapeña, aldiz, bakarra da eta argia da: *Geurea ikurrina!*

Irailaren 12an eta 15ean ikurrina eta mendia elkarrekin joango dira Bai Euskal Herriari esker. Batak eta besteak duten lotura aztertu ondoren, mendian euskal ikurraren koloreak erakutsiko di-

↓ Deialdiak

IRAILAK 12, OSTEGUNA

■ **19:30.** Anoetako auditoriumean, hitzaldia: Euskaldunak mendian. Martin Zabaleta eta Jon Goikoetxea *Boli*-ren eskutik.

IRAILAK 15, IGANDEA

HERNIORA MENDI MARTXA

■ **08:45.** Anoetako plazatik irtengo dira Herniora joateko.
■ **09:45.** Asteasuko Iturriotzetik abiatuko dira Herniora joateko.
■ **12:00.** Hernio tontorrean ekitaldia.

tuzte. Lehen deialdia hilaren 12an izango da, hau da, ostegunean. Anoetako auditoriumean *Euskaldunak mendian* gaiaren inguru-



Tolosaldeko Bai Euskal Herriari herri mugimenduaren deialdiak iragartzen dituen kartela. HITZA

ruan bi mendizale ariko dira. Alde batetik, Everest mendira ikurrina igo zuen lehen mendizalea ariko da hizketan, hau da, Martin Zabaleta. Bestetik, espedizio guztietara euskal ikurra soinean eraman duen Jon Goikoetxea *Boli* ibartarra. Lehen pertsonan bizitako esperientziak kontatzeaz gain, euskaldunek mendian izan duten bilakaeraz mintzatuko dira bi mendizaleak.

Bigarren hitzordua irailaren 15ean, igandean, izango da. Men-

di irteera berezia egingo dute Anoetatik eta Asteasutik abiatuta. Berezia da, Hernio protagonistak duen beste ekimen batekin bat egiten duelako. Iraileko igandean ohikoa da Herniora joatea; mendi-buelta egin eta ondoren erromerian dantzatzea. Bai Euskal Herriari euren ekarpena egingo dio jaiari, ikurrinaren aldeko aldarria Herniora eramango baitute igandean. Bi irteera puntu jarri dituzte, eta mendi martxa gailurrean amaituko da.

Anoetatik 08:45ean irtengo dira, eta Asteasuko Iturriotzetik ordu-bete beranduago. Batera joan ezin duenak, bestera joateko aukera izango du, beraz. Herniora eguerdian iritsiko dira, ekitaldia 12:00etan jarri baitute bertan.

Tolosaldeko Bai Euskal Herriari herri ekimenak eskualdeko herritar guztiak deialdi hauetara gonbidatu ditu, ikurrinaren aldeko kanpainarekin bat egiteaz gain, mendiaz gozatzeko aukera eskaintzen baitute.

Martin Zabaleta • Everest igo zuen lehen euskalduna

«Everest tontorrean nire herria aukeratu nuen»

Asier Imaz

Munduko mendirik garaiena igo-tzen lehen euskalduna Martin Zabaleta (Hernani, 1949) izan zen. Igoera gogor baten ondoren, Everesten ikurrina zabaldu zuen lehena izan zen; 1980. urtea zen. Iru-di hark bere ondorioak izan zituen, eta garaiak kontuan hartuta...

Igoera «epiko» haren inguruko bizipenak eta ikurrinarekin bizitako esperientziak Anoetan azalduko ditu Martin Zabaletak bihar, 19:30ean, auditoriumean eskainiko duen hitzaldian.

Hermanin jaio zinen 40. hamarkadaren bukaeran, baina egun, Ameriketako Estatu Batuetan bizi zara familiarekin.

Everest igo eta urtebetera Kaliforniara joan nintzen. Urte erdia bertan egiten nuen, eta beste erdia hemen. 1994. urtera bitarte horrela ibili nintzen, baina ondoren, familia han nuen, Kalifornian geratu nintzen bizitzan.

Everest tontorrean ikurrinarekin argazkia atera duen lehena izan zara. Nola gogoratzen duzu momentu hura?

Ikurrina batzuk folklore moduan erabiltzen dute, eta beste batzuk sentitu egiten dugu. Euskal Herriari bere nortasuna du, eta horren adierazleak bat ikurrina

da. Hori guztia garai hartan Everesteko tontorrean bizitzea izugarria izan zen; gure herria den bezalakoa adieraztea zen, bere izaera duela adierazteaz.

Nolako igoera izan zen?

Prozesu nahiko luzea izan zen oro har. Hasteko, eguraldi txarra zegoen, haizea, elurra... guri azken txandan tokatu zitzaigun, hau da, uretirik hainbat talde saiatu ziren igoera egiten. Oxigenorik gabe igotzea pentsatzen genuen, baina nola edo hala igo beharra zegoenez, oxigenoarekin egitea beste aukerarik ez genuen izan. Horrela abiatu ginen hego lepotik tontorrera. 12 orduko igoera izan zen, baldintza oso gogorretan. Luzea izan zen eta izugarriko elur piloa zegoela gogoratzen naiz. Xerparekin ere arazoak izan nituen.

Zergertatu zen bion artean?

Garai hartan ez zen gaur bezala, arnesik eta ezer gabe igotzen ginen: bata besteari lotuta. Tontorrera iristean, Gora Euskadi askatuta! oihukatu nuen. Izugarria izan zen. Aldi berean, ordea, oxigenorik gabe geratu ginen, eta xerpari kalte egin zion horrek: burua joaten hasi zitzaion, eta garbi pentsatzeko arazoak zituen. Jaitsieran, bere laguntza baino gehiago bere ardura nuen. Erlaitz baten ingurutik jaitsi nahi

zuen eta puskatu egin zitzaion. Momentu epikoak bizi izan genituen bertan. Nahikoa lan izan genuen bertan. Arnasa hartzeko zailtasunarekin geratu zen, eta gaua han pasa nahi zuela esaten zuen... oso gogorra izan zen.

Euskal mendizaleei bidea zabaldu zien igoera izan zen.

Aurrez nafar batzuk Dhaulagirin izanak ziren, baina egia da oihartzun zabalagoa izan zuen nire igoerak, nahiz eta ongi ez jakin zergatik. Euskal espedizioentzat pizgarri moduko bat izan zen. Ondoren, Himalayarako espedizio guzti horiek etorri ziren.

Eta horrekin batera, mendizaletasuna ikusteko beste modu bat ere bai.

Asko aldatu da bai. Gaur dena komertzializatutik dago, jendea profesionalizatu egin da. Markak, esponsorrak... beste gauza bat da. **30 urte igaro diren arren, aldatu ez dena ikurrinaren aldeko aldarria da.** 80. urtea zen, eta trantsizioa deitzen dioten hori ematen ari zen. Gehiago espero genuen, baina ezer ez da gertatu. Ikurrina Everesten zabaltzea jendeak bere egin zuen, liberazio moduko bat izan zen. Espedizioak egin zuena herriak bere hartu zuen, eta izugarriko poza zabaldu zen.

Beste alde ere izango zuen, ezta?

Baina nik nahiago nuen herriarekin bizi, lagunekin bizi, eta ez

itxurakeriaren mundu faltsu horretan. Ikurrina erakusteak ate asko itxi zizkidan, horrela sentitu nuen. Espainiar bezala joan izan

banintz, lorpen izugarri bezala salduko zuten, eta ate asko zabalduko zizkidan, baina esan bezala, nik nire herria aukeratu nuen.

Egin HITZAREN HARPIDEDUN

Irailaren 1etik urriaren 31ra arte, ETA JASO:



OLASAGASTI

kontserba produktu sorta

www.conservasolasagasti.com

Harpidedun egiten diren guztien artean

SEGORE ETXEBERRI

nekazal turismoa, bi lagunentzako

asteburu baterako egonaldia*

ZOZKATUKO DUGU

*Ostrial gauetik, igande goizera PENTSO OSOAN

Harremanetarako:
902 82 02 01
harpidetza@hitza.info

hitza

Ibarrako Piperraren Lehiaketa Gastronomikoa martxan da

Xepla elkarteak antolatuta, irailaren 22an egingo den Ibarrako azoka berezian izena eman daiteke

I. Terradillos Ibarra

Ibarra, Azoka eta Piparra azoka berezia izango da irailaren 22an, Hauspoa kultur elkarteak antolatuta. Azokaren barruan hainbat ekitaldi izango dira, eta horien artean, Ibarrako Piperraren Lehiaketa Gastronomikoa egingo dute bederatzigarren urtez. Bada, bertan izena emateko aukera zabalik dago.

Ibarrako Xepla elkarteak antolatzen duen lehiaketa hori Euskal Herri mailakoa da. Datorren astelehena, irailaren 16ra arte eman ahalko da izena, eta antolatzaileek lehenbailehen egitea gomendatu dute, sukaldeak izen emate hurrenkeraren arabera esleituko baitituzte. Antolatzaileek sukaldia, gasa, piper gorriak, piper berdeak, tipulinak eta gainerako osa-



Pasa den urteko lehiaketako une bat. I.T.

gaiak emango dizkiete lehiakideei. Bestelako osagaiak eta erabili-ko duten tresneria euren kontura izango dira. Parte hartzaileek derri gorrez erabili beharko dute Ibarrako piperra euren plateretan. Ibarrako piperrarekin egindako sei pintxo berdinekin egingo dituzte, beste osagai batzuekin edo gabe prestatuak, baina kontuan izan behar dute zapora nagusia piperrarena izan beharko dela.

Irabazleei txapela emango zaie

eta sailkaturiko lehen hirurei garairurrak eta 200 euro, 150 eta 120 hurrenez hurren plater bakoitzeko. Era berean, parte hartzaile guztiak lehiaketa amaieran egingo duten herri bazkaria gonbidatuta daude.

Lehiaketan parte hartu nahi dutenek Ibarrako udaletxeko 943 67 03 99 telefono zenbakira deitu edo kultur etxeko ibarrakult@euskalnet.net helbidera idatzi dezakete.

Beasti Guraso elkarteak hainbat ikastaro antolatu asmo du

Zortzi ikastaroren artean aukeratu ahalko dute herritarrek; irailaren 17a baino lehen eman beharko da izena

I. Terradillos Berastegi

Beasti Berastegiko guraso elkarteak helduei zuzenduriko hainbat ikastaro antolatu asmo du ikasturte berrirako. Animatzen direnek zortzi ikastaroren artean aukeratu ahalko dute, baina, hori bai, behin izena eman ostean ez da atzera botatzeko aukerarik izango, eta urte osoko zenbatekoa ordaindu beharko da. Antzerkiaren kasuan, ikastaroa berria denez, abendura arte izango da atzera botatzeko aukera.

Mantenimendu gimnastika, aerobika, pilates (hastapena eta jarraipena), antzerkia, ingeles B1 maila eta jarraipena, josten ikasi (eskuz eta makinaz) eta yoga izango dira aukeran. Ikastaro batean edo gehiagotan interesa dutenek guraso elkartearen postontzian utzi beharko dute inprimakia irailaren 17a baino lehen.

Zazpi kultur lantegi izango dira aukeran, ikasturte berrian

Izena ematea zabalik dago irailaren 27a arte; gazte txartela dutenek eta familia ugariak hobaria izango dute

I. Terradillos Ibarra

Ibarrako Udaleko kultura sailak ikasturte berrirako kultur lantegien eskaintza aurkeztu du, eta izena emateko epea zabalik dute interesatuak. Zazpi lantegiren artean aukeratu ahalko da, eta izena emateko edo informazioa eskatzeko Ibarrako kultur etxera deitu ahalko da, 943 67 03 99 zenbakira. Irailaren 27a baino lehen eman beharko da izena.

Sabel dantza, egur taila, ehozi-

riak, altzariak zaharberritzea eta konpontzea, pintura, eskulanak eta josketa eta arropa konponketa tailerrak egongo dira aukeran. Sabel dantza ostegunetan emango dute, egur taila astearte eta ostegunetan, ehoziari lantegia astearteetan, altzarien zaharberritze eta konpontzea astelehen eta asteazkenetan, pintura astearte eta ostegunetan, eskulan tailerra astelehen eta asteazkenetan eta josketa eta arropa konponketa asteazken eta ostiraletan. Urritik ekainera bitarte emango dituzte kultur lantegiak. Sabel dantza eta ehoziariak 136,78 euroko prezioa dute, eta gainerakoek 170,16 eurokoa. Gazte txartela dutenek %10eko hobaria izango dute prezioen gainean, eta familia ugaria direnek %50ekoa.



Iragan ikasturteko lantegietan eginiko lanen erakusketa. HITZA



Alurr dantza taldeko kideak Lekeition *Soinaz* ikuskizunarekin. HITZA

Alurr dantza taldean matrikula egiteko aukera zabalik da

Irailaren emanaldiak eskaintzen jarraituko dute: etzi Zaldibian izango dira, eta hilaren 28an, Altsasun

I. Terradillos Ibarra

Ibarrako Alurr dantza taldea ikasturte berriari ekiteko prest da. Urrian hasiko dira eskolak, eta uztailaren matrikula egin ez duenak hilabete honetan izango du horretarako aukera. Dantzan ikasi nahi dutenek Ibarrako Kultur Etxean edo Alurr dantza taldearen bulegoan topatuko dituzte inprimakiak, eta edozein zalan-tza argitzeko alurr@alurr.net era idatz daiteke, alurr.net webgunera jo dezakete, edo bestela 635 757 048 telefono zenbakira deitu.

Ibarrako dantza taldeetiko gogoratu dutenez, maila ezberdineko taldeak dituzte. Aiert Beobide dantzari eta koreografo profesionalak emango ditu eskolak aurretan ere. Aukeran dantza taldean aritutakoa da, eta egun, Ahatik bere konpainia zuzentzen du. Alurrekin batera, berriz, *Oinazez* eta *Izanak Dirau, 1512* zuzendu ditu. Bada, aurtengo berrikuntzetan, pasa den urtean sortutako mutilen taldeak jarraituko duela, eta talde berri bat sortu dela gaitzekoekin nabarmendu dute.

Arratsaldeetan dantza egiteko aukerarik ez duten gazteentzat, goizetan emango dute aukera, eta helduen taldea ere sortu dute «ondo pasa eta dantzan ikasi nahi dutenentzat».

Emanaldiekien «gustura»

Bestalde, Alurr dantza taldeak emanaldi ugari izan ditu udan. Besteak beste, Altzon, Ikaztegitan, Berrobin, Donostian, Berastegin eta Ibarrako festetan izan dira. «Gure helburu nagusiak bete ditugu, hau da, dantza egitea eta ahal den jende gehienara iristea dantza eginez».

Bada, irailaren ere emanaldiak eskaintzen jarraituko dute. Azken jendaurrerokoa Lekeitioko plazan izan zuten, iragan igandean. Bertan, Alurren azken hiru ikuskizunen (*Sua, Oinazez* eta *Izanak Dirau, 1512* eta Oreka Tx-ekin egindako lan batzuk) bilduma den *Soinaz* eskaini zuten. Ikuskizun bera eskainiko dute etzi, ostiraletan, Zaldibiko frontoian, 22:30ean hasita.

Uztartuz Euren azken lanari dagokionez, Ibarrako San Bartolome jaietan aurkeztu zuten, Lasarten maiatzean eginiko estreinaldiaren ostean. «Harrera oso ona izan zuten, herritarrei asko gustatu zitzaizkien, eta oso pozik geratu ginen», azaldu dute Alurreetik. Ikuskizun honekin joango dira Altsasura, hilaren 28an. Alurrekin batera, berriz, *Oinazez* eta *Izanak Dirau, 1512* zuzendu ditu. Bada, aurtengo berrikuntzetan, pasa den urtean sortutako mutilen taldeak jarraituko duela, eta talde berri bat sortu dela gaitzekoekin nabarmendu dute.

© ibarraldea@hitza.info

Jokin Aranalderen euroagindu eskaera salatu dute herritar ugarik kalean

Paueko Dei Auzitegiko Instrukzio Ganberak hilaren 24an emango du jakitera euroaginduren gaineko erabakia

Iñigo Terradillos

Herritar ugarik adierazi diote babesaren Jokin Aranalde iheslari gazteluarrari, eta bere aurkako euroagindu eskaera salatu dute. Euroaginduren Aurkako Herri Mugimenduak deituta, *Euroagindurik ez! Konponbide garaia da!* lelopean manifestazio jendetsua egin zuten atzo Tolosako Triangulotik Ibarra plaza-raino, Aranalderi elkartasuna adierazteko antolatutako ekitaldiekin amaituz. Aurrez, atzo goizean, iheslari gazteluarraren euroagindu eskaera izan zuten aztergai Paueko Dei Auzitegiko Instrukzio Ganberan. Irailaren 24an emango dute ezagutzera Espainiak eginko eskaeraren inguruan hartutako erabakia.

Jokin Aranalderi alaba ETAn sartzea leporatu zion Espainiak, eta Amaia Rekalde abokatua oroitari zuten atzo, Mikel Uzkudun presoak aitortu zuela berak sartu izana Aranalderen alaba ETAn. EIPKren garrantzia nabarmendu zuten Aranaldek epaiketan, eta ekainaren 15eko ekitaldian eginko konponbide proposamena oroitari zuten. Gainera, gogoratu zuen François Hollande Frantziako presidentea Aljeriara joan dela bertako gerran Frantziak eginko krimenengatik barkamena eskatzera, eta gaineratu zuten espero duela Frantziako presidentea 60 urte barru Euskal Herrira barkamen eske etorri behar ez izatea.

Jokin Aranalderekin batera, Aitor Zubillaga iheslari legazpiarra estraditatzeko euroagindu eskaera ere aztertu zituen atzo Paueko Auzitegiak. Libre uzteko eskatu zuten defentsako bere abo-



Jokin Aranalde ibartarra (erdian), atzo, Paueko Dei Auzitegiko Instrukzio Ganberaren kanpoan. **BERRIA**

katuak, Espainiak ez zuela informazioa sei eguneko epean igorri argudiatuta, eta Espainiaren akusazioen datak nahastu egiten direla delitu batengatik bi aldiz zigortzeko.

Eskaerak babesa

30 lagun inguru joan ziren atzo Pauera, bi iheslari babesa adierazteko, tartean Jexux Peñagarikano Ibarra alkatea eta Ibai Iriarte Tolosakoa eta eskualdeko hainbat herritar. Jexux Peñagarikano adierazi duenez, «herritarri elkartasuna adierazteko helburuz» joan ziren bertara: «Agurtu egin dugu, animoak eman dizkiogu, eta berak gure presentzia eskertu du». Peñagarikano Aranaldek adierazitakotik giza alorra nabarmendu du: «Bizi izan duen errepresioaren berri eman du, nola izan den torturatua, eta nola erabaki zuten ihes egitea ezin izango zuelako jasan berri torturatua izatea.

Bestalde, Frantziako Justiziari

gatazka konpontzeko bidean ahal duen guztia eskatu dio», adierazi du Peñagarikano.

Iheslariak «gatazkaren parte aktibo» izan nahi dutela adierazi dutenean iritsi dela Jokin Aranalderen eta beste iheslariaren atxilotu gogoratu du Peñagarikano: «Iheslari bakoitzaren drama pertsonalaz gain, kolektibo osoaren egoera konpontzea ezinbestekoa da».

Berre demokratikorik ez

Bestalde, epaiketan izan zen Giza Eskubideen Nazioarteko Federazio presidentea Patrick Baudouin. Espainian torturak sistematikoki direla ohartarazi zuten epaileei, eta nabarmendu Espainiak Justiziak ez duela nahikoa berre demokratikorik eskaintzen. Hori hala, epaileei gogorazi zuten, nazioarteko hitzarmenei jarraituz, uko egin diezaiekete eta bi estradizio eskaerei.

Miarritzen Euskal Iheslari Politikoen Kolektiboak ekainaren

15ean gatazkaren konponbidetako proposamen bat aurkeztu, eta egun batzuetara, ekainaren 24an, atxilotu zuten Jokin Aranalde Frantziako Poliziak Heletan (Nafarroa Beherea), ezohiko kontrol batean. Espainiako Barne Ministerioaren arabera, euroagindu eskaera baten ondotik atxilotu zuten, baina, epailearen aurretik igaro ostean, Aranalde aske geratu zen. Izan ere, euroagindua tramitatu gabe zegoen Espainiako Gobernutik indarrean zegoela zabaldu arren.

Aranalde Gaztelun jaio zen, baina urte luzez Ibarra bizi izan zen. Frankismo garaian bi aldiz atxilotu zuten, 1967an eta 1968an. Ondoren, 2012an, berriro atxilotu zuten. 12.000 euroko fidantzapean askatu zuten azken atxiloaldi horretatik; aurrekoetan bezala, orduan ere torturatua izan zela salatu zuten Aranaldek. Aske geratu eta hilabete gutxira, atxilotu berri batzuen beldur zelarik Iparaldera egin zuten ihes.

→ Laburrak

Urrezko Aizkolariari bi saio izango ditu Joseba Otaegik

ZIZURKIL Urrezko Aizkolariari saioko jardunaldi berria izango da gaur, Ordizian. Floren Nazabal txapeluduna eta Joseba Otaegi neurtuko dira 19:15etik aurrera. Zizurkildarrak igande honetan bertan izango du beste saio berri bat. Hain zuzen ere, Urrezko Aizkolariaren hamargarren jardunaldia jokatu dute Arabako Villabuena herrian. Juan Jose Lopez Azpilikuetaren aurka egingo du Otaegik.

Silo bolak egiteko plastikoak uzteko eskaria

BERASTEGI Silo bolak egiteko erabiltzen den plastikoaren bilketa egingo dute Berastegin, datorren ostegunean, hilaren 19an. Hori dela eta, aurreko egunean, hilaren 18an, San Martingo parroki ondoan finkatuta dagoen bilketa puntura, bala horiez egokitutako tokira, eramatea eskatu dute udaletik. Era berean, haizeak altxa ez ditzan, plastikoak lotuta eramatea eskatu dute. Udalak eskerrak ematen dizkie aurrez, plastikoak bertaritzen dituzten herritarrei.

Larramendi auzoko festak antolatze bilera, gaur

TOLOSA Tolosako Larramendi auzoan festak ospatuko dituzte urriaren bukaeran. Jaiak antolatze bilera egingo dute gaur, 19:30ean, Arkauter etxean dagoen auzo elkartearen lokalean. Elkartetik auzotar guztiei dei egiten diete parte hartzera.

Kirol arloko laguntzak eskatzeko aukera dago

IBARRA Kirol arloko laguntzak eskatu ahal dituzte banakako nahiz elkarteek. Belabieta kiroldegian eskatu beharko dira laguntzak, hilaren 14a, baino lehen.

**Tolosaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	21°
HOTZENA	15°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
Faxa: 943 65 00 18
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa.
Kudeatzailea: Jon Mujika.
Publizitateak: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona-aiztondo: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info

Tolosa Herria
Hedabideak
SM-ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



Galtzaurdi
euskara
taldea



eta Tolosaldeko
beste 77
eragile

Hitza-k
Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduña, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

XVII. Udako Argazki Lehiaketa



PAISAIA ANIZTASUNAREN KOLOREAK

Lehen argazkia Jabier Azkuek bidalia da, eta kostaldeko ilunabarra erakutsi nahi izan du. Bigarrena, berriz, Irati Zabalak abuztuan Salamancako Candelarion atera duen argazkia da. Ainhoa Muñagorri Londresen izan da, eta Tamesis, Tower Bridgetik begiratuta ikus daiteke bidali duen ar-

gazkian. Oraindik, hilaren 23a, bitartean lehiaketa parte hartzeko aukera dago. Izen-abizenak eta argazkiaren azalpen txiki bat adieraziz bidali udan ateratako argazkiak thargazkiak@hitza.info helbide elektronikora. Pertsona bakoitzak bakarra bidali dezake. AZKUE / ZABALA / MUÑAGORRI

Agenda

GAUR

DEIALDIAK

■ **Ikaztegieta.** Ikaztegieta Udalak erretirodunentzako irteera antolatu du. Hilaren 19an, ostegunean, izango da, eta Lizarra eta Iruñea bisitatuko dituzte. Bazkaria, Iruñeko Baserri jatetxean izango da, eta pertsona bakoitzak 25 euro ordaindu beharko du. Izena hilaren 16a baino lehen eman beharko da Ikaztegieta udaletxean.

■ **Tolosa.** Hilaren 16an sorospen eta sorosle ikastaroa izango da Tolosan, DYAK antolatuta. Hiru asteko iraupena izango du, eta matrikula 100 euro ordaindu beharko da. Saioak 19:00etatik 21:00etara izango dira. Izena emateko, 943 46 46 22 telefono zenbakira deitu behar da.

■ **Tolosa.** Alpino Uzturre elkar-teak hilaren 15erako mendi irteera antolatu du. Erraitzeko lepoa eta Isaba artean izango da. Lakora eta Kartxela mendiak igoko dira. Autobusa San Franziskotik aterako da 07:00etan, eta sei ordu eta erdiko iraupena izango du. Bazkideek 11 euro ordaindu beharko dute autobusa, eta bazkide ez direnek 13 euro. Izena ematea, 943 65 27 89 telefono zenbakira deituz edo alpinouzturre@hotmail.com helbide elektronikora idatziz egin daiteke.

■ **Tolosa.** Aurten 50 urte betetzen dituztenen arteko bazkaria antolatzen ari dira, 1963 urteko

kintoak. Hilaren 28rako antolatu dute bazkaria, Frontoi Jatetxean. 14:00etan hasi, eta bazkalondoren Dj batek musika jarriko du. Izena emateko, tolosa1963@hotmail.com helbide elektronikora idatzi daiteke. Beharrezkoa izango da, ordea, 50 euroak 3008 0156 40 2755567324 Caja Ruraleko kontuan sartzea. Izena, lagun kopurua eta 1963eko Bazkaria kontzeptua garbi aipatuz. Izena ahalik eta azkarren ematea eskatu dute antolatzaileek guztia behar bezala antolatzeko.

■ **Tolosa.** Tolosako Foro Errepublikarrak, 20:00etan, bilera egingo du aurtengo ikasturtea antolatzeko. Zerkausiko erdialdean, kristalezko gelatxoan elkartuko dira.

■ **Zizurkil.** Ziotza pilota eskolak, ikasturte berriko izen ematea zabalik du. 7 urtetik gorako neska-mutiek eman dezakete izena. Hilaren 16ean hasiko dira entrenamenduekin.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Bronte, C. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

●●●● agurrak